

## **UDALBATZA ERATZEKO BILKURA-AKTA**

**Eguna:** 2023ko ekainaren 17a

**Tokia:** Pleno Aretoa

**Hasiera ordua:** 12:00

**Amaiera ordua:** 12:16

### **Bertaratuak:**

#### **Batzarkideak:**

- Gorka Artola Alberdi
- Ainhoa Lete Zabaleta
- Aitor Narbaiza Amasorrain
- Maite Usabiaga Uranga
- Aitor Aranzabal Gallastegui
- Zihortza Marzan Usandizaga
- Jesus Maria Telleria Telleria
- Olatz Manuel Ecenarro
- Markel Azkargorta Cid
- Eider Usobiaga Isacelaya
- Mikel Lete Txintxurreta
- Maite Aguirre Iribar
- Martin Etxaniz Beaskoetxea
- Irune Galarraga Ezenarro
- Kepa Sebal Lazpiur
- Joseba Elosua Urkiri
- Alberto Alonso Martin

**Idazkaria:** M<sup>a</sup> Concepcion Ugalde Izeta and.

Bergaran, 2023ko ekainaren 17an, eguerdiko 12:00etan, Pleno Aretoan bildu dira goian aipatutakoak Udalbatza eratzeko.

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. atalak diotenari jarraituz, zinegotzi-agiriak Idazkariari eman ondoren, bertaraturako zinegotzien artean zaharrena eta gazteena nortzuk diren aztertu da, eta Jesus Maria Telleria Telleria eta Kepa Sebal Lazpiur dira.

Aipatutako bi zinegotziek Adin-mahaia eratu dute, udal idazkaria den M<sup>a</sup> Concepcion Ugalde Izetarekin batera. Jesus Maria Telleria Telleria izan da Lehendakaria.

Adin-mahaiak zinegotzien agiriak eta Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udaletxera bidalitako egiaztagiria aztertu ditu, zinegotzi-agiriak eta egiaztagiria bat datozela frogatzeko.

Ondoren, bertaratutako zinegotzi guztiek, Legeak ezarritako formula erabiliz karguari zin egin eta beraien karguak eskuratu dituzte. Zinegotzi guztiek, Alberto Alonso Martinek izan ezik, karguari zin egin diote edo hitza eman dute "legeak horrela behartuta" erantsita; eta bakoitza dagokion lekuan eseri da.

Horrenbestez eta zinegotzien erabateko gehiengoa bertan izanda, Adin-mahaiak Udalbatza eratutzat jo du eta Alkatea aukeratzeari ekin dio.

Horrela, galdetu da hautagaien zerrendetan buru izan direnetatik zeintzuk aurkeztu diren Alkatetzarako hautagai moduan. Hautagai bakarra aurkeztu da, EH Bilduko Gorka Artola Alberdi jauna.

Hautagaia zehaztuta, aditzera eman da erabateko gehiengoa lortuko balu, alkate izendatua izango dela, karguari zin egin ondoren. Halaber, adierazi da, horrela ez balitz, Udal Hauteskundeetan boto gehien jaso duen zerrendako burua den zinegotzia izango litzatekeela Alkatea.

Horrez gain, adierazi da, boto kopuru gehien izandako zerrenden artean berdinketa eman balitz, zozketaz ateratako zerrendako buru den zinegotzia izango litzatekeela Alkatea.

Jarraian, isilpeko bozketa egin da. Horretarako zinegotzietan paper txuri bat eta kartazal bat eman zaie. Jarraian kartazalak ireki ditu lehendakariak eta 10etan Gorka Artolaren izena azaldu da eta beste 7etan orri txuria ezer jarri gabe azaldu da. Beraz, EH Bilduko Gorka Artola Alberdik 10 boto lortu ditu eta beste 7ak abstenitu egin dira. Beraz, erabateko gehiengoa lortu du.

Gauzak horrela, eta erabateko gehiengoa lortu duenez Gorka Artola Alberdi alkate izendatua izan da, karguari zin egin ondoren, bertaratutako hainbat herritarren txaloen artean. Karguari zin egin dio Udalbatzaren aurrean legeak ezarritako formula erabiliz eta "Legeak horrela behartuta" egiten duela erantsita.

Alkatea kargua hartuta, txalo artean, Jesus Maria Telleria Telleria jaunak zoriondu eta zumitzezko uztaia eman dio.

Ondoren Alkateak hartu du hitza eta adierazpen bat egin du. Adierazpen hori bideo-aktan dago.

Jarraian alkatea zoriondu du Mikel Lete jaunak bere taldearen izenean.

Jarraian Alkateak bukatutzat eman du bilkura, eta nik, Idazkaria naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut. Halaber, ziurtatzen dut bilkura honi dagokion bideo-aktaren fitxategiak ondorengo "hash" edo identifikatzailea duela:

ID: b265832c98c997c6422714101aac4a691043bb580556120a11deb36eff62ebe4